

## MATERIALISMO HISTERIKOA

# Poloetako zurrunbiloa



UXUE APAOLAZA LARREA

**M**oteltzen ari da, eta hala jarraitzen badu ezingo dio haize hotz-hotzari han, Poloetan, eutsi, gugana iritsiko da ekialdeko piztia, Poloetako zurrunbiloa, Siberiatik.

Horrela hasten den edozein narraziok ematen du beldurra, etxean itxi eta ez ateratzeko tentazioa. Noizean behin horrelako kontzeptuak errepikatzen hasten gara aurpegi serioz, “ziklogenesi leherkor bat gertatzeko arriskua dago”, zer esaten ari garen jakin gabe. Hotza egingo duela, hori baino ez.

Klasean hainbat herrialdeetako jendea elkartzen gara, eta “gaur zer eguraldi dago?” galderari erantzuten diogu. Inoiz ez gara ados jartzen eguna hotz ala bero dagoen. Ekuatore Gineakoari beti “hotz” iruditzen zaio, Ukraina aldekoari “bero”. Eta denok “hotz” esan genuen abenduaren 1ean, Ukrainakoak izan ezik, “bai zera, hori ez da hotza, Errusiako leku batzuetan zero azpitik hogeit hamar gradura joan dira gaur eskolara”. Hainbat herriri buruz hitz egin digu, gasa ekoizten duen hainbat lekuri buruz, Errusia ederrari buruz... Ekuatore Gineako ikasleak esan du: “Han eskale izatea ezinezkoa izango da”. Eta hemen?

Poloetako zurrunbiloa entzun eta batzuk “ba pelikula eta mantatxoa” pentsatuko dugu. Mantatxoaren lekuan, berez, berogailua esan nahi dugu. Gasa. “Pelikula eta gasa”. Eta gure sosa horretan xahutuko ditugu. Eta pobrezia erosoagoa izateko sailkapenetan galduko gara, “energia pobrezia” esaten. Eta irakurriko dugu, urtero bezala, “kausa naturalen ondorioz hil zen bart kutzazain automatiko batean lo egiten zuen gizona”. Eta beldur txikiagoa sentituko dugu “Poloetako zurrunbiloa hautsi da” entzunda baino. ●

## EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



## Kultura

Loraldiberri Liburu eta Disko azokaren lehen edizioa egin da Urruñan, abenduaren 4an. Hogeit hamar argitaletxe eta elkarte hartu du parte, eta hainbat idazle eta musikari hurbildu dira beren lanak sinatzera. Urrunaga elkarteak antolatuta du azoka, Bertola elkarteak lagunduta.

## Plateruena

Durango Plateruena berriak 2023an irekiko ditu atekak. Udalak hartu du Durango kafe antzokiaren ardura, eta kudeaketarako kultur mahai bat osatuko da. Euskalduntzea bultzatzea, herriko eragileentzako erreminta izatea eta euskarazko kultur gintzaren gune bilakatzea du helburu.

## Kazetaritza

Berrian argitaratutako *Tonban ehortzirik* artikulu sortarengatik Rikardo Arregi kazetaritza saria irabazi du Miel A. Elustondok. Elustondok hiru asteetan behin egiten du ARGIAN Jendeak ataleko elkarrizketa. Finalisten artean ARGIAKO Amaia Lekunberri ere bazegoen, anorexiari buruzko *Larrunagatik*.